

BESTELAKO XEDAPENAK

SPRI-ENPRESEN GARAPENERAKO EUSKAL AGENTZIA

1835

EBAZPENA, 2023ko martxoaren 31koa, SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez onartzen baitira «Hazinnova» 2023ko laguntzen programaren oinarri arautzaileak eta deialdia.

SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziak, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren menpeko zuzenbide pribatuko erakunde publikoak, Euskal Autonomia Erkidegoan industria eta enpresa arloko jarduera bultzatzera bideratutako jardunbideak bideratzeko eta lehiakortasuneko bektore gisa honako hauen arteko trantsizioak Euskadiko enpresetan txertatzen laguntzeko ardura du: teknologia-digitala, energia-ingurumena eta demografia-gizartea. Horretarako, enpresen jarduera ekintzailean inbertsioa, berrikuntza, nazioartekotzea eta jarduera sustatzea bultzatzen ditu.

Horrekin lotuta, SPRIk-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziak, Euskadiko enpresetan berrikuntza txertatzea bultzatzeko hainbat ekintza garatzen du.

Dagoeneko abian dauden beste ekimen batzuen osagarri gisa, «Hazinnova» izeneko programa hau jarriko da abian. Horren helburua da enpresen lehiakortasuna hobetzea, berrikuntza sustatu ondoren irtenbideak identifikatuta eta aholkularitza-zerbitzu espezializatuaren bidez horiek ezarrita.

Ondorioz, Enpresa industrialetan eta produktu-prozesu industrialaren, informazioaren eta komunikazioaren gizartearekin, logistikarekin eta handizkako merkataritzarekin lotutako zerbitzu-enpresetan berrikuntza bultzatzea da Laguntza Programa honen helburu nagusia.

Bestalde, 1997ko azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginak, 48.5 artikuluan, Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrek finantzatzeko erakunde guztiei agintzen die haien dirulaguntzako jarduera, besteak beste, publizitate-printzipioaren arabera moldatzea. Hori guztia dela eta,

HONAKO HAU EBATZI DUT:

Lehenengoa.– «Hazinnova» 2023 Laguntza Programari dagozkion oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea. Horren edukia eranskin gisa gehitu da ebazpen honetan.

Bigarrena.– «Hazinnova» 2023 programari dagozkion oinarri arautzaileak onartzen dituen Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian osorik argitaratzea.

Hirugarrena.– Ebazpen honen kontra berraztertze errekurtsoa jar daiteke SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren Zuzendaritza Nagusiaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa administrazioarekiko epaitegietan, bi hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honek eragina izango du Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Bilbao, 2023ko martxoaren 31.

SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziako zuzendari nagusia,
AITOR URZELAI INZA.

ERANSKINA

HAZINNOVA 2023 LAGUNTZEN PROGRAMAKO OINARRI ARAUTZAILEAK

Oro har Euskadiko enpresa-kolektiboak eta zehatzago bertako enpresa txikiek oraindik ere adierazle baxuak dituzte berrikuntzaren erabilerari dagokionez. Hori dela eta, beharrezkoa da enpresen artean aholkularitza presentziala eta indibidualizatua bultzatzea lehiakortasuna areagotzea ahalbidetuko dieten tresnak erabiltzen laguntzeko.

Eta are gehiago ekonomia globalizatuaren testuinguruan, berrikuntza ekonomien lehiakortasunerako elementu estrategikoa dela eta gizartean eragin zabalak dituela kontuan hartuta. Horregatik, gaur egungo koiunturan, berrikuntza lortu ahal izateko funtsezkoak dira hazkunde ekonomikoa eta enplegua sortzea eta mantentzea.

Berrikuntza prozesu edo emaitza teknikoa baino zerbait gehiago da. Izan ere, pertsonen eta gizarte osoaren sormena erakusten duen fenomeno soziala dela esan dezakegu. Gizarte baten eta enpresen gaitasun berritzaileak pausoz pauso eraikitzen dira. Ez dira inprobisatzen eta, ondorioz, ez dira imitatzeko edo kopiatzeko errazak.

SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentzia, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren menpeko zuzenbide pribatuko erakunde publikoa, besteak beste, Euskadiko enpresetan berrikuntza bultzatzera zuzendutako jardueraz arduratzen da.

Dagoeneko abian dauden beste ekimen batzuen osagarri gisa, «Hazinnova» izeneko programa hau jarriko da abian. Horren helburua da enpresen lehiakortasuna hobetzea, berrikuntza sustatu ondoren irtenbideak identifikatuta eta aholkularitza-zerbitzu espezializatuaren bidez horiek ezarrita.

Amaitzeko, ekimenaren helburua da enpresen sustapenean barneratutako eragile ugarien (kasu honetan, erakunde laguntzaile gisa Innobasquerekin) arteko elkarlana helburu duen bidean aurrera jarraitzea, baliabideak optimizatzeke eta enpresen egiturarekiko gertutasun handiagoa lortzeko. Era berean, aipatzekoa da 2023ko ekitaldirako onartutako erakundearen Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren barruan txertatua dagoela Programa hau. SPRIren Administrazio Kontseiluak onartu zuen 2022ko abenduaren 21ean.

1. artikulua.– Xedea.

Oinarri hauen araua da Euskadiko enpresan berrikuntza bultzatzera zuzendutako espezieetan egindako laguntzak arautzea. Laguntza horiek produktuan eta negozio-prozesuetan berrikuntza txikiak sortuko dituzten mikroproiektuak eginda ematen dira eta inpaktu handia izaten dute eta enpresetan epe laburrera begirako emaitzak lortzen dituzte.

2. artikulua.– Laguntzen izaera.

1.– Programa hau 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Legeko, Dirulaguntzen Lege Orokorreko, 8.3 artikulua xedatutako printzipioen mende dago.

2.– Laguntza horiek behar bezala jasotako laguntzen ondoz ondoko lehiaren arabera emango dira. Ondorioz, banaka eta modu ordenatuan ebatziko dira, oinarri hauetan zehaztutako dokumentazio guztiarekin eskaera osatu den unea kontuan hartuta.

3.– Programa hau aplikatzearen ondorioz emandako laguntzek garrantzi txikiagoko edo de minimis laguntza izaera dute. Ondorioz, 2013ko abenduaren 18an Batzordeak onartutako (EB)

1407/2013 Erregelamenduak xedatutakoaren mende egongo dira. Programa honen baitan emandako laguntzek itzuli beharrik gabeko dirulaguntza izaera izango dute.

4.– Programa honen baitan emandako laguntzek espezietan eta itzuli beharrik gabeko dirulaguntza izaera izango dute.

5.– Programa honen baitan emandako dirulaguntzak ez daude esportatutako kopuruei, banaketa-sare bat ezartzeari eta ustiatzeari, edo esportatzeko jarduerari lotutako beste gastu korrante batzuei zuzenean lotuta.

3. artikulua.– Baldintzak eta definizioa.

Programa honen helburuetarako, definizio hauek ezarri dira:

1.– Mikroproiektua: elkarri lotuta eta koordinatuta dauden jardueren multzoa; mikroproiektu baten arrazoiak da aurrekontu batek ezartzen dituen mugen, ezarritako kopuruen eta aurrez finkatutako denbora-tartearen barruan helburu espezifikoak lortzea. Mikroproiektuen kudeaketak ezagutzak, gaitasunak, tresnak eta teknikak proiektuaren eskakizunak asebate ahal izateko proiektu bateko jardueretan aplikatzean datza.

2.– Aholkularitzako enpresa espezializatuak: programaren enpresa onuradunean Mikroproiektu bat ezartzeko beharrezko aholkularitza- eta laguntza-zerbitzuak eskaintzeaz arduratuko den kanpoko aholkularitza-enpresa edo -profesionala. Lizitazioko prozesuan esleipenduna izan dena izango da.

3.– Lankidetzak-akordioa eta Proiektuaren Memoria: laguntza eskatu duen enpresak eta Aholkularitza Enpresa Espezializatuak batera betetako dokumentua, SPRIk emandako formatuaren arabera. Bertan, bi alderdiek garatu beharreko mikroproiektuekin lotutako gaiak eta haien ezauzgarri nagusiak zehaztuko dira.

4.– Itxiera-txostena: aholkularitza-enpresa espezializatuak egindako eta enpresa onuradunak balioztatutako deskargu-dokumentua da. Honako hauek zehaztu beharko dira bertan: identifikatutako erroka, hedatutako laneko plana (helburuak, kronograma, metodologia), bideratutako ekintzak, bilera-aktak eta ondorioak (lorpenak, gomendioak eta gorabeherak). Programak emandako formatuaren arabera.

4. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

1.– 2023an espezietan emandako laguntzak emateko Programa honen helburura bideratutako baliabideen kontratazioaren balio zenbatetsia 2.700.000 euro artekoa izango da, eta baliabideak 2023rako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan jasota dauden SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziaren aurrekontuetan helburu horietarako ezarritako aurrekontu-zuzkiduretatik eratorriko dira.

2.– Espezietan emandako baliabideek izaera mugatzailea dutenez, Programak laguntzak eskatzearen eta ematearen artean ahalik eta bizkortasun handiena egotea nahi du. Ondorioz, baliabideak modu ordenatuan esleituko dira, espedienteak osatuta dagoen unearen arabera.

3.– Programara bideratutako espezietan emandako baliabideak agortzeak Programa amaitzea eragingo du. Egoera horren berri emango du SPRIko Zuzendaritza Nagusiak ebazpenaren bidez eta bere webgunean (www.spri.eus). Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

4.– Espezietan emandako laguntzen kontrataziorako balio zenbatetsia agortzen denean, ezingo da laguntza gehiago eman eta, arrazoi hori dela eta, espresuki uko egingo zaie aurkeztutako eta

ebatzi gabe dauden eskaerei. Eta ez dira onartuko baliabideak agortu direla iragarri ondoren aurkeztutako eskaerak.

5. artikulua.– Erakunde onuradunak eta izaera hori lortzeko eskakizunak.

1.– Onuradun izateko erakunde eskatzaileek bete beharko dituzten baldintzak hauek dira:

a) Industria-jarduerak egitea, edo industriari lotutako zerbitzuak, informazioaren gizartekoak eta komunikabideetakoak, logistika edo handizkako merkataritzakoak.

b) Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera-zentro bat izatea. Hain zuzen ere, aurkeztutako proiektuak zentro horretan izan beharko du inpaktua eta bertan egin beharko da Mikroproiektua.

c) Zerga arloko betebeharrak, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiarekin lotutakoak eta/edo erakunde laguntzaileekin adostutakoak egunean izatea.

d) Euskadiko Jarduera Ekonomikoen Zergako dagokion epigrafean altan emanda egon behar dute. Epigrafe hori kontuan hartuko da enpresaren jarduera 5. artikuluko 1.a paragrafoan adierazitako programaren jarduera onuradunetako batekin bat datorren zehazteko.

e) Eskaera egiteko unean, gutxienez 5 langileko plantilla izatea.

2.– Erakunde onuradunek ezingo dute egoera hauetakoren batean sartuta egon:

Lehenengoa.– Laguntza publikoak eskuratzeko edo Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekin edo bertako sektore publikoarekin kontratatze debekua edo desgaitzea ezarrita izatea. Kasu horretan, Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako Legeak xedatutakoaren arabera sexu-arrazoiak eragindako diskriminazioagatik desgaitzea edo zigorra barne egongo da.

Bigarrena.– Barne-merkatuarekiko bateraezina eta legez kontrakoa den laguntza aitortu duen Europako Batzordearen aurretiazko erabaki baten ondoren berreskuratze-agindu baten mende daudenak.

Hirugarrena.– 1/1997 Legegintzako Dekretuko 50. artikulua eta 38/2003 Legeko 13. artikulua xedatutakoa betez, onuradun izaera lortu ezin denean eta, artikulua horiekin lotuta, bereziki kasu hauetan:

a) Oraindik bete gabe izatea edozein administrazioetatik edo sektore publikoko edozein erakundetatik jasotako laguntza edo dirulaguntzei dagozkien zenbatekoak itzultzeko betebeharrak. Ezingo dute, halaber, deialdi honetan parte hartu zehapen-prozedura batean zehapen irmo bat jaso dutenek (betiere, laguntza publiko batetik datorren zehapena bada), edo horrelako programetan lehiatzea galarazten duten zehapenak dituztenek, baldin eta zehapena betetzen ari badira. Eskatzailea dirua itzultzeko prozedura batean edo mota horretako zehapen-prozedura baten barruan badago, horren emaitza ikusita emango edo, hala badagokio, ordainduko da laguntza.

b) Prozedura batean kaudimengabetzat joak izatea, konkurtsoa eskatu izana, konkurtsoan egotea, esku-hartze judizial batean egotea edo Konkurtso Legearen arabera desgaituak izatea, konkurtsoko kalifikazio-epaian finkatutako desgaitze-aldia amaitu gabe egonda.

c) Sexu-arrazoiengatik bazterkeria egiteagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko araudia ez betetzeagatik zigor administratiboa edo penala jaso izana, zigor horretan ezarritako aldian zehar. Honako enpresa hauek ere ezingo dute jaso laguntzarik edo dirulaguntzarik: estatuko araudiaren arabera berdintasun-plan bat izan behar dutenek baina ez dutenek; eta 50 langile baino gehiago izanik, sexu-jazarpena do sexu-arrazoiengatik jazarpena prebenitzeko eta

hari aurre egiteko neurriak ezarri izana ziurtatzen ez duten enpresek, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko Estatuko legediak ezarritako baldintzetan.

Laugarrena.— 200.000 euro baino gehiagoko de minimis laguntzak jaso izana gehienez abian den ekitaldi ekonomikoak eta aurreko bi ekitaldiek osatzen duten aldi osoaren arabera zenbatuta. Gehieneko zenbateko hori 100.000 eurora gutxitzen da onuraduna errepide bidezko merkantzien garraio-lanak egiten dituen besteen konturako enpresa bada. Programako 7.1 artikuluan jasotako beste laguntza batzuekin metatutako arauak.

Bosgarrena.— Armen ekoizpen, merkaturatze eta finantzaketan ez aritzea, 14/2007 Legeak, 2007ko abenduaren 28koak, Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunarenak, xedatutakoaren arabera.

Seigarrena.— Sektore hauetakoren batean jarduerak garatzea: (i) arrantza eta nekazaritza, (ii) nekazaritzako produktuen lehen mailako produkzioa, eta (iii) nekazaritza-produktuen eraldaketa eta merkaturatzea, 1407/2013 Araudiaren 1.1.c) artikuluan aurrez ikusitako kasuetan.

3.— Onuradun izaeratik kanpo geratu dira dirulaguntzaren helburu den mikroproiektuaren esparruetan zerbitzuak (oinarri hauetan aurrez ikusitakoak) eskaintzen dituzten aholkularitza-enpresekin zuzenean edo zeharka loturaren bat (akzioen edo partaidetzen bidez) eta/edo haien gobernu-organotan erabakitzeak gaitasuna duten onuradunak.

4.— Laguntzen onuradun izateko eskakizunak laguntza-eskaerak aurkezten diren unetik emandako laguntzaren likidaziora arte bete beharko dira.

5.— Aurreko paragrafoetan aurreikusitako alderdiak modu honetan egiaztatuko dira:

a) SPRIk ofizioz egiaztatuko du honako eskakizunak betetzen direla:

– Oinarri hauetako 5.1.a artikuluan ezarritakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera-zentro bat dutela, zeinetan proiektuak eragina izango duen.

– Euskadiko Ekonomia Jardueren Gaietako Zergaren epigrafe industrialean alta emanda daudela. Epigrafe hori kontuan hartuko da enpresaren jarduera oinarri hauetako 5.1.a artikuluan adierazitako programaren jarduera onuradunetako batekin bat datorren zehazteko.

– Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko eta haien erakunde laguntzaileekiko betebeharrak egunean dituztela.

Dena den, eskatzaileak berariaz uko egin diezaioke baimena emateari. Hala bada, kasu bakoitzean eskumena duen organoaren administrazio-ziurtagiri positiboak eman beharko ditu.

b) Gainerako eskakizunak eskaera egiteko inprimaki elektronikoan txertatuta dagoen erantzukizunpeko aitortpenaren bidez egiaztatuko dira. Haren egiazkotasuna, egoki izanez gero, ikuskapeneko bisitan egiaztatu ahal izango da.

6. artikulua.— Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

Espezietan emandako programa honetako laguntza ezaugarri hauek betetzen dituzten mikroproiektuak egiteko jasoko du enpresa onuradunak eta aholkularitza espezializatuan edo indibidualizatuan oinarrituko da:

1.— Negozioaren produktu eta/edo prozesuetan berrikuntza txikiak, inpaktu handikoak, sortu behar dituzte eta horiek enpresarentzat epe laburrera begira emaitzak eragin behar dituzte.

2.– SPRIk deitutako lizitazio-helburuaosatzen duten loteen arabera, dirulaguntza jaso dezaketen proiektuen tipologia barruan jasota egotea, gai edo arloen arabera multzokatuta; hau da, kasu honetan, berrikuntzako soluzioak identifikatzeko eta ezartzeko aholkularitza-zerbitzuen barruan, gai hauetan:

- Arlo ekonomiko-finantzarioan berrikuntzako soluzioak identifikatzeko eta ezartzeko aholkularitza-zerbitzuak, enpresaren kudeaketa ekonomiko-finantzarioa eta kudeaketa estrategikoa hobetuko dituztenak, enpresaren errentagarritasuna kontrolatze aldera.

- Barneko Administrazio Prozesuen arloan berrikuntza soluzioak identifikatzeko eta ezartzeko aholkularitza-zerbitzuak, administrazio-zerbitzuak (eskarien kudeaketa, kobrantzak eta ordainketak, dokumentuen kudeaketa, bezeroen kudeaketa, erreklamazioen kudeaketa, berankortasuna eta abar) berriro diseinatzea ahalbidetuko dutenak, enpresaren eraginkortasuna hobetze aldera.

- Produkzio arloko berrikuntzako soluzioak identifikatzeko eta ezartzeko aholkularitza zerbitzuak, produkzio-prozesuak hobetzea ahalbidetuko dutenak, hala, enpresaren produktibitatea, kalitatea, jasagarritasuna edo segurtasuna areagotzeko.

- Logistika arloan berrikuntza-soluzioak identifikatzeko eta ezartzeko aholkularitza-zerbitzuak, hornidura- edo banaketa-katea hobetzea ahalbidetuko dutenak, hala, gastuak, ingurumenarekiko eragina eta entrega-epeak murrizteko, eta bezeroenganako zerbitzua hobetzeko.

- Pertsonen arloko berrikuntzako soluzioak identifikatzeko eta ezartzeko aholkularitza-zerbitzuak, enpresa baitan pertsonen konpromisoa eta motibazioa areagotzeko pertsonen kudeaketa hobetzea ahalbidetuko dutenak.

- Bezeroen arloko berrikuntzako soluzioak identifikatzeko eta ezartzeko aholkularitza-zerbitzuak, merkatu-kuota areagotzeko, bezeroen ezagutza, harrera, kaptazioa edo leialtzea hobetzea ahalbidetuko dutenak.

- Merkatu Berrien arloan berrikuntzako soluzioak identifikatzeko eta ezartzeko aholkularitza-zerbitzuak, enpresaren marketina egokitzea ahalbidetuko dutenak, hala, merkatu geografiko edo bezeroen segmentu berrietara iritsi ahal izateko.

- Produktuaren arloan berrikuntza-soluzioak identifikatzeko eta ezartzeko aholkularitza-zerbitzuak, honakoak ahalbidetuko dituztenak: (1) negozioaren bolumena areagotuko duten produktuak eta lotutako zerbitzuak eskuratzea (2) aurrez zituzten produktuak edo lotutako zerbitzuak nabarmen hobetzea, haien ezaugarriak aldatuta, erabilera aldatuta, bezeroaren esperientzia aldatuta, materialak ordezkaturak, diseinua moldaturak, ekodiseinua erabilita eta/edo ontziratzea aldatuta, negozio-bolumena edo salmenta-marjinak handitzeko (3) babes industrialak ahalbidetuko duten soluzioak identifikatzea.

3.– Horiek ezartzeko aholkularitza-enpresa esleipendunarekin elkarlana bideratuko da dagokion lizitazio-prozesuaren ondoren laguntza eskatu den zerbitzu motarako.

4.– Proiektua gauzatzeko baldintza hauetara egokitzea:

- Horiek egiteko kanpoko aholkularitza-enpresak izango duen iraupen-denbora eta gehieneko dedikazioa 90 egun naturalekoa eta in situ egindako 50 lan-ordukoa izango da ebazpena jasotzen den unetik zenbatzen hasita. Edonola ere, gauzatze-datak ezingo du 2024ko martxoaren 31koa baino geroagokoa izan.

- Enpresa eskatzaileari aholkularitza-enpresa espezializatua esleitu zaiola jakinarazten zaion unetik zenbatzen hasi eta gehienez zazpi egun naturaleko epean, eta bi enpresa horien artean

proiektuaren beharrak identifikatu ahal izateko lehen harremanak izan ostean, enpresa eskatzaileak egin beharreko lanaren proiektu-memoria eta Lankidetza-akordioa aurkeztu beharko dizkio SPRi. Dokumentu hori bi aldeek sinatu beharko dute (enpresa eskatzaileak eta aholkularitza-enpresak).

– Enpresa eskatzaileak, esleitutako aholkularitza-enpresa espezializatuaren laguntzarekin, onartutako proiektua ezarriko du laguntza eman zaiola jakinarazten dion aldeko ebazpena jaso eta gehienez 90 egun naturaleko epean.

Aholkularitza banaka eta enpresa onuradunaren egoitzan edo, gorabehera partikularrek hala justifikatzen badute, modu telematikoan, eskainiko da.

7. artikulua.– Laguntzen modalitatea eta zenbatekoa.

Laguntzaren zenbatekoak, SPRik egindako lizitazioaren arabera, diruz lagun daitekeen proiektu-tipologia bakoitzaren esleipeneko prezio hauek izango ditu:

– Arlo ekonomiko-finantzarioan berrikuntzako soluzioak identifikatzeko eta ezartzeko aholkularitza-zerbitzuak: 4.500 euro.

– Barneko administrazio-prozesuen arloan berrikuntzako soluzioak identifikatzeko eta ezartzeko aholkularitza-zerbitzuak: 4.375 euro.

– Produkzio arloan berrikuntzako soluzioak identifikatzeko eta ezartzeko aholkularitza-zerbitzuak: 4.550 euro.

– Logistika arloan berrikuntzako soluzioak identifikatzeko eta ezartzeko aholkularitza-zerbitzuak: 4.450 euro.

– Pertsonen arloan berrikuntzako soluzioak identifikatzeko eta ezartzeko aholkularitza-zerbitzuak: 3.480 euro.

– Bezeroen arloan berrikuntzako soluzioak identifikatzeko eta ezartzeko aholkularitza-zerbitzuak: 4.524 euro.

– Merkatu berrien arloan berrikuntzako soluzioak identifikatzeko eta ezartzeko aholkularitza-zerbitzuak: 4.468 euro.

– Produktuaren arloan berrikuntzako soluzioak identifikatzeko eta ezartzeko aholkularitza-zerbitzuak: 4.375 euro.

Enpresa bakoitzak, gehienez, deialdi honetan bi Hazinnova proiektu egin ahal izango ditu.

1.– Programa honetan aurrez ikusitako laguntzak ezingo dira helburu berarekin emandako beste laguntza batzuekin edo komunitateko finantzaketako beste modu batzuekin pilatu.

2.– Programa hau aplikatuz emandako laguntzek garrantzi gutxiagoko laguntzen edo de minimis izaera dute.

3.– Erakunde onuradun batek jaso dezakeen de minimis guztizko laguntzak ezingo du 200.000 euro baino handiagoa izan, abian den ekitaldi ekonomikoak eta aurreko bi ekitaldiek osatzen duten aldi osoaren arabera zenbatuta. Onuraduna errepidez merkantzien garraioko lanak besteen kontura egiten dituen enpresa bat bada, gehieneko zenbateko hori 100.000 eurora gutxituko da (gainera, laguntza ezingo da erabili errepide bidezko merkantziak garraiatzeko ibilgailuak erosteko). Hori dela eta, ez da Programan aurrez ikusitako laguntzarik emango emandako laguntzak, onuradunak jaso izan ditzakeen beste de minimis laguntza batzuei gehituta, muga

hori gaingitzen duenean, laguntza horiek emandako administrazioa edo administrazioak edozein izanda ere.

4.– Minimis laguntzak emandakotzat joko dira enpresari aitortzen zaionean baduela legezko eskubidea laguntza jasotzeko.

8. artikulua.– Laguntza Eskaera.

1.– Aurrez ikusitako laguntzetarako sarbidea izateko baldintzak betetzen dituzten erakundeek SPRIren webgunean gaitutako Laguntza Eskaera formularioak bete beharko dituzte eta, horretarako, Innobasqueren laguntza jasoko dute.

2.– Likidazio-eskaera hori erakunde eskatzailea ordezkatzeko behar adina ahalmen duen pertsonak sinatu beharko du (onartutako sinadura elektronikoa bidez). Aurkezte-data izango da SPRIren sistemetan dokumentazio osoa erregistratu deneko data.

3.– Laguntzaren eskaerak erakunde eskatzailea eta haren legezko ordezkaria eta erakunde baitan harremanak izateko pertsona identifikatzeko datuak, ezartzeko aukeratutako Mikroproiektu mota, eta erantzukizunpeko adierazpena jaso beharko ditu. Bertan, honako hauek zehaztu beharko dira:

- Laguntza eskatu ahal izateko behar adina ahalorde indarrean duela.
- Erakundeko lege-ordezkariaren izen-abizenak eta Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia (NAN) edo Atzerriarraren Identifikazio Zenbakia (AIZ).
- Erakundearen izena, Identifikazio Fiskaleko Zenbakia (IFZ) eta helbide-soziala.
- Laguntzaren eskaeran jasotako diruz lagundutako jarduerak egingo dituzten eta Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen jarduera ekonomikoko zentro bateko helbidea (gutxienez).
- Euskadiko Jarduera Ekonomikoen Zergaren kasuan kasuko epigrafean alta emanda egotea.
- Egunean egotea Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko edota haren laguntzaileekiko zerga betebeharretan, eta baita Eusko Jaurlaritzarekin daukan betebeharretan ere, eta ez izatea iraungitako, erreklamaturako edo ordaindu gabeko zorrik SPRI Taldeko ezein enpresarekin.
- Aurreko bi ekitaldi fiskaletan eta laguntza eskatzen den ekitaldi fiskalean jasotako de minimis laguntzen zerrenda, bertan adierazi beharko da laguntza hori noiz eman zen, zer erakundek eman zuen, zein programaren baitan eta laguntzaren zenbatekoa.
- Enpresaren neurria zehazteko datuak, enplegu kopuruaren arabera. Kopuru hori generoaren arabera banatuta zehaztu beharko da (gizonezkoak eta emakumezkoak).
- Ez egotea 5. artikuluko 2. atalean jasotako egoeraren batean. Oinarri hauetako erakunde onuradunak.

4.– Laguntza-eskaerak jasota du espedientea izapidetzeko edozein unetan zerga arloko betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekin lotutakoak betetzean eskatzeko SPRIk espresuki izango duen baimena. Era berean, Jarduera Ekonomikoen Zergan enpresa zer epigrafetan altan emanda dagoen kontsultatzeko eta Erantzukizunpeko Adierazpenean zehaztutakoari dagokionez edozein dokumentazio edo egiaztagiria eskatzeko baimena izango du SPRIk.

5.– Laguntza-eskaerak jasota du programaren erakunde laguntzaileak izapidetutako eskaerak behar bezala kudeatu eta horien jarraipena egin ahal izateko egokitzen jotzen duen informazio guztia SPRIk erakunde laguntzaileari emateko duen baimena.

6.– Enpresa onuradunak baliagarritzat joko ditu laguntzaren eskaeran enpresak zehaztutako harremanetarako pertsonaren posta elektronikoko kontura SPRIk igorritako jakinarazpen guztiak. Programako onuradun gisa azaltzen den enpresari dagokiona bakarrik onartuko da harremanetarako posta elektronikoko kontu moduan.

7.– Eskatzaileek bermatuta izango dute beren hizkuntza -euskara edo gaztelania- ahoz nahiz idatziz erabiltzeko eskubidea, Programa honen ondorioz SPRIrekin izango dituzten harreman guztietan.

9. artikulua.– Laguntza-eskaerak aurkezteko epea.

Oinarri hauek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasiko da laguntza-eskaerak aurkezteko epea, eta 2023ko urriaren 26an bukatuko da. Dena den, eskatzaileei zuzendutako arreta teknikoa 2023ko urriaren 26ko 15:00etan amaituko da (Espainiako penintsulako ordua).

Laguntzaren eskaera eta aurreko artikuluan eskatutako dokumentazioa diruz lagun daitekeen jarduera hasi aurretik aurkeztu beharko dira.

10. artikulua.– Ebaluazio- eta ebazpen-prozedura.

1.– Laguntza-eskaeren ebaluazioa eta ebazpena espediente osatuta dagoen unean egingo da.

2.– Ebazpena SPRIko Zuzendaritza Nagusiak adostuko du zuzeneko esleipen-erregimenaren bidez, eta eskaeren ebazpena dokumentazio osoarekin aurkeztu diren ordenaren arabera egingo da, oinarri hauek xedatutakoa betez dagozkion loteetan aurrez ikusitako balioa eskuragarri dagoen bitartean.

3.– Ebazteko epea. Dokumentazio osoa aurkezten den datatik hasita gehienez 30 egunetan ebazteko epea ezarri da. Aipatutako epean ebazpenik ematen ez bada, ezetsi egin dela ulertuko da.

4.– Ebazpenen berri ematean jakinaraziko da zenbateko dirulaguntza emango den, zein baldintzatan ematen den eta jarduera hori garatzeko beharrezkoa den beste edozein baldintza ere adieraziko da.

5.– Ebazpena egiten denetik 10 egun balioduneko gehieneko epean eman eta jakinaraziko zaio erakunde eskatzaileari. De minimis laguntza denez, ebazpena Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1408/2013 (EB) araudiko 6. artikuluan aurrez ikusitakoaren arabera eman eta jakinaraziko da.

6.– Ebazpena SPRIren web-gunean eta EHAAn argitaratuko da, denek izan dezaten emandako laguntzen berri.

11. artikulua.– Egiaptapeneko eta kontroleko jarduerak. Aurkezteko epea.

1.– 6.5 artikuluan xedatuta dagoen moduan hurrengo hilabete barruan jarduera amaitzen denean, erakunde onuradunek, erakunde laguntzailearekin elkarlanean, laguntza justifikatu beharko dute SPRIren webgunean egokitutako dagokion likidazio-eskaeraren arabera.

2.– Likidazio-eskaera erakunde eskatzailea ordezkatzeko behar adina ahalmen duen pertsonak sinatu beharko du sinadura elektronikoko bidez. Aurkezte-data izango da SPRIren sistemetan dokumentazio osoa erregistratu deneko data.

3.– Likidazio-eskaerak erakunde eskatzailearen eta haren legezko ordezkariaren identifikazio-datuak eta zerbitzu-prestazioaren balorazioa jaso beharko ditu.

4.– Likidazio-eskaerarekin batera, erakunde onuradunak eta zerbitzua eskaintzen espezializatutako aholkularitza-enpresak sinatutako itxiera-txostena aurkeztu beharko dira.

12. artikulua.– Laguntza- edota likidazio-eskaerak zuzentzea.

Laguntza- edo likidazio-eskaera baldintza guztietan beteta ez balego edo eskatutako gainerako dokumentazioarekin batera aurkeztuko ez balitz, SPRIk erakunde onuradunaren legezko ordezkariari falta dena konpondu edo derrigor aurkeztu beharreko dokumentuak eman ditzala eskatuko dio gehienez 10 egun naturaleko epean. Erakunde onuradunak epe horretan akatsa zuzendu ez badu, eskaera ukatuko da, helburu horretarako agindutako ebazpen baten bidez.

13. artikulua.– Erakunde laguntzailea.

1.– Oinarri hauetan jasotako araudiak xedatutakoa betez emandako laguntzen eraginetarako, Innobasque, Berrikuntzaren Euskal Agentzia erakunde laguntzaile izendatu da 1991ko abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak eta 1997ko azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak xedatutakoaren arabera.

2.– Innobasque, Berrikuntzaren Euskal Agentzia funtzio hauez arduratuko da erakunde laguntzaile gisa:

- a) Programaren dinamizazioa eta sustapena.
- b) Eskaerak izapidetzeko prozesuan eskatzaileei laguntza ematea.
- c) SPRIri laguntza ematea Programako onuradun izan daitezkeen baldintzak betetzen diren aurrez egiaztatzean.
- d) Programaren sustapen- eta dinamizazio-jarduera baloratzea eta jarraipeneko txostenak egitea.

14. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

1.– Onuradunen betebeharrak dira Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorreko 14. eta 46. Artikuluek eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Printzipio Ordenatzaileen Legeko Testu Bategina onartzen duen 1997ko azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuko 50.2 artikulua xedatutakoak, eta bereziki, honako hauek:

a) Emandako laguntza onartzea. Horrekin lotuta, dirulaguntza eman izanaren jakinarazpena jaso den dataren ondoren hiru egun balioduneko epean, erakunde onuradunak ez badio SPRIren aurrean laguntzari espresuki uko egiten, onartuta geratu dela ulertuko da.

b) Emandako laguntza jarduera-plana garatzera bideratzea.

c) SPRIk beharrezkotzat jotako dokumentazio osagarria eska dezakeela eta SPRIk izendatutako langileek, bere edozein instalaziotan, beharrezkotzat eta egokitza jotako egiaztapen guztiak egin ditzaketela onartzea. Horien guztien helburua izango da emandako laguntzaren xede den proiektua gauzatu dela eta eskatutako baldintzak bete direla egiaztatzea.

d) Eusko Jaurlaritzaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoari, eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari edo eskumena duten beste kontrol-organo batzuei (Estatu zein komunitate mailakoak) laguntzen helburuaren fiskalizazio-funtzioak betetzeko garaian eska dezaketen edozein informazio ematea.

e) Laguntza emateko garaian kontuan hartutako edozein gorabehera aldatu dela jakinaraztea SPRIri.

f) Programa honen bidez emandako dirulaguntzaren jatorriari publizitate egokia egitea.

g) Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista bermatzea, diruz lagundutako proiektua gauzatu bitartean sortzen diren dokumentu eta euskarri guztietan.

15. artikulua.– Laguntzak aldatzea.

1.– Laguntza emateko baldintzetan edozein aldaketa gertatzen bada eta, edozein kasutan, beste erakunde publiko edo pribatu batzuek emandako laguntzak edo dirulaguntzak edota beste edozein diru-sarrera edo baliabide jaso badira xede berbererako, laguntza esleitzeko Ebazpena aldatu ahal izango da, betiere Programa honetan ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen jarraitzen badira.

2.– Halaber, programaren kudeatzaileak jarduerak gauzatzeko luzapen bat eman dezake, baldin eta erakunde eskatzaileek hala eskatu eta behar bezala justifikatzen badute; luzapen horren ondorioz, gehienez, 1 hilabetez atzeratu ahal izango da proiektuak gauzatzeko epea (90 egun naturalekoa da epe hori eta inola ere ezingo du igaro 2023ko martxoaren 30eko gauzatze-data).

3.– Jarduketak laguntza-eskaeran eta aurkeztutako dokumentazio osagarrian jasotakoak izango dira, eta SPRIk aldaketak baimendu ahalko ditu, betiere aldaketa horiek alde aurretik justifikatu baditu erakunde onuradunak, amaitu aurretik, eta ez bada hutsaltzen programa honek hasiera batean jarraitutako jarduketa eta helburuen izaera.

16. artikulua.– Ez-betetzeak.

1.– Laguntza honekin lotuta itzuli beharra aitortuz gero, jasotako eta berriz itzuli beharreko zenbatekoa izango da SPRIk igorritako onarpen-ebazpenean jakinarazitako zerbitzua eskuratzeko prezioaren baliokidea den zenbatekoa. Gainera, dirulaguntzen legeriak xedatutakoa betez, dago-kion berandutze-interesa eskatu ahal izango da.

2.– Edonola ere, artikulua honetan aurrez ikusitako eraginetarako ez-betetzea izango da honako hau:

a) Kanpoko enpresa espezializatuak aholkularitza-jarduera hasi izana eta erakunde onuradunari egotz dakizkiokeen kausak direla eta behar bezala ez garatzea.

b) SPRIren baimenik gabe, laguntzaren eskaeran eta dokumentazio osagarrian jasotako jarduerak aldatzea. SPRIri ez jakinaraztea laguntza emateko garaian aztertutako baldintzak aldaraziko dituen proiektuaren gauzatzean gertatutako edozein aldaketa. Horrek, eragin hauetarako, ez-betetzea eragingo du. Aldaketak baimendu ahal izango dira, horiek SPRIri eskatu bazaizkio eta erakunde onuradunak justifikatu baditu (ahal den neurrian), proiektuan aplikatu aurretik, eta baldin eta Programaren helburu diren jardueren eta xedeen izaera hutsaltzen ez bada.

c) Gastu hautagarriak epe barruan ez justifikatzea edo Programa honetan eta laguntza emateko ebazpenean jasotako eskakizunak ez betetzea.

d) Diruz lagundutako proiektua betetzeko epeak gainditzea, aldatzeko baimena edo luzapena eman ez bada.

e) Laguntza eskuratzeko Programa honetan ezarritako baldintza eta eskakizunak edo laguntza emateak berekin zekartzan baldintzak bete gabe.

f) Programan edo laguntza emateko ebazpenean aurreikusitako kontrol-neurriak ez onartzea edo horien garapena oztopatzea.

g) Proiektua beste zerbaitera desbideratzea edo laguntzak emateko ebazpenean ezarritako beste edozein betebeharrak ez betetzea.

h) Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikuluan eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 53.1 artikuluan aurreikusitako kausak.

3.– SPRIri dagokio ez-betetzea egiaztatzeko espedienteak hasi, izapidetu eta ebaztea.

4.– Ez badira betetzen deialdi honetan eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan jasotako bete-kizunak edo, hala badagokio, dirulaguntza emateko ebazpenean ezartzen direnak, dirulaguntza ezeztatuko da ez-betetze espedienteak ireki ondoren eta, dirulaguntza edo berandutze-interesak itzuli beharko zaizkio SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziari, 1/1997 Legegintzako Dekretuan eta 1991ko abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuko II. tituluan (horren bidez arautzen dira EAEko Aurrekontu Orokorren kargura emandako dirulaguntzen araubide orokorra, bermeak eta itzulerak eta horren bidez ezartzen dira dirulaguntza horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen baldintzak, araubidea eta betebeharrak) ezarritakoari jarriki, nahiz eta horrek ez duen eragotziko kasuan kasuko ekintza legalak abiaraztea eta dagozkion zigorrak ezartzea. SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziako Zuzendaritza Nagusiari dagokio dirulaguntza ezeztatzeko –eta, hala badagokio, partzialki edo guztiz itzularazteko– espedienteak abiarazi eta ebaztea.

5.– Halaber, gainfinantzaketa badago ordainketaren ostean beste laguntza batzuk jaso izanagatik, programak helburu duen jardueraren kostua gainditzeko duen laguntza zatia itzuli beharko da, 7.1 artikuluan araututakoari jarraiki. Kasu horretan, itzuli beharreko zenbatekoa zehaztuko da gertaera hori adierazteko eta itzulera erabakitzeke emango den ebazpenean.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Araudi aplikagarria.

Programa honi araudi hau aplikatuko zaio:

1.– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta Lege hori garatzen duen Erregelamendua (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua) dirulaguntza arloko oinarritzko legeriari dagokion guztian.

2.– 1/1997 Legegintza Dekretua, Euskadiko Ogasun Orokorren Antolarauei buruzkoa.

3.– Abenduaren 17ko 698/1991 dekretua, zeinaren bidez arautzen baita Euskal Autonomia Erke-degoko Aurrekontu Orokorren kargura emandako dirulaguntzen berme eta ordainketen araubide orokorra, eta zeinetan finkatzen diren berorren kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen baldintzak, erregimena eta betebeharrak.

4.– Europako Batzordearen EB 1407/2013 Erregelamendua, abenduaren 18koa, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 107. eta 108. artikuluek de minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa (EBAO 2013 L 352/1).

5.– 2013ko abenduaren 17ko Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 1303/2013 Erregelamendua (EB), Eskualde Garapenerako Europako Funtsen inguruko xedapen arruntak ezartzen dituenak, besteak beste.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan (aurrerantz, DBLO), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren

2016ko apirilaren 27ko Datuak Babesteko 2016/679 Erregelamendu Orokorrean (aurrerantzean, DBEO) eta datu pertsonalak babesteko gainerako araudi aplikagarrian ezarritakoarekin bat etorriz, jakinarazten da emandako datuak SPRIk tratatuko dituela eta haren Tratamendu Jardueren Erregistroan sartuko direla.

Tratamendu horren helburua, deialdiaren interes publikoan eta parte hartzeko eskabidean oinarritua, eskatutako laguntzaren espedientea kudeatzea da. Datu pertsonalak tratatzeko oinarri juridikoa da SPRIk duen interes publikoa, SPRI Enpresa Garapenerako Euskal Agentzia sortzeko estatutuetan ezarritako helburuak betetzeko.

Informazio hori gaian eskumena duen Administrazio Publikoari eta SPRI Taldeko enpresei laga ahal izango zaie.

Laguntza emateko espedientea izapidetzen den bitartean eta legez eska daitekeen epean gordeko dira datuak, legezko betebeharrak bete ahal izateko.

Interesdun guztiek eskubidea izango dute datuak zuzentzeko edo ezabatzeko, tratamendua mugatzeko, datuen eramangarritasunari aurka egiteko edo tratamendu automatizatuan soilik oinarritutako erabaki baten xede ez izateko, bai eta datuak babesteko araudi aplikagarrian aurreikusitako beste edozein eskubide ere, eskubide horiek aplikagarriak direnean, honako helbide elektroniko honetara idatziz bidalita: lopd@spri.eus Era berean, interesdunak Datuak Babesteko gure ordezkariarekin harremanetan jarri ahal izango dira, idatzizko komunikazioaren bidez, helbide elektroniko honetan: dpd@spri.eus

Era berean, interesdun orok du edozein erreklamazio aurkezteko eskubidea dagokion kontrol-agintaritzan, eta SPRIren kasuan, Datuak Babesteko Euskal Bulegoa izango da: www.avpd.eus

SPRIk Datu Pertsonalen Babeserako esparruan egiten duenaren inguruko informazio gehigarriaren eta xehakatuaren berri izateko, jo <https://agenda.spri.eus/es/aviso-legal/privacidad/web-orrialdeko-pribatutasun-politikara>.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak oinarri hauei buruz hartzen dituen erabaki guztiak administratiboak dira eta, beraz, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa da jurisdikzio eskuduna.

Bilbao, 2023ko martxoaren 31.

SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziako zuzendari nagusia,
AITOR URZELAI INZA.